

Euskal AEko merkatuko zerbitzuen sektorearen salmentak % 0,2 igo dira 2024ko hirugarren hiruhilekoan


Urteko metatuan, salmentak % 1,2 gehitu dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko *Merkatuko beste zerbitzu batzuk* sektorean salmentak % 0,2 igo dira 2024ko hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, prezio konstanteetan eta egutegiaren eraginak kenduta. Sektore honetan *Garraioa, Ostalaritza, Informazioa eta komunikazioak* eta *Enpresentzako zerbitzu-jarduerak* sektoreek eskainitako zerbitzuak kontabilizatzen dira.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, prezio finkoetan eta dagozkien urtaro-eraginak aterata, salmentak % 1,2 jaitsi dira.

≡ Euskal AEko merkatuko beste zerbitzu batzuen indizearen urte arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Beste merkatu zerbitzuen indizea

Merkatuko beste zerbitzu batzuk sektorearen barruan, salmenten bilakaera positiboa izan da *Ostalaritzan* eta *Jarduera administratibo eta zerbitzu laguntzaileetan*, % 2,3ko eta % 0,3ko hazkundeekin, hurrenez hurren. *Garraioan* eta *biltegiaritzean* salmentak % 0,1 jaitsi dira urte artean, *Informazio eta komunikazioetan* % 0,4 eta *Jarduera profesional zientifiko eta teknikoetan* salmentak % 1,2 txikiagoak izan dira aurreko urteko hiruhileko berean baino.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmentak % 2,3 jaitsi dira hirugarren hiruhilekoan *Garraio* eta *biltegiaritzean*, eta % 0,9 *Jarduera administratibo eta zerbitzu laguntzaileetan*. *Ostalaritzan* salmentak ez dira aldatu hiruhileko artean; *Informazio* eta

komunikazioetan eta Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan salmentak aurreko hiruhilekoan baino % 0,1 eta % 0,3 handiagoak izan dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko merkatuko beste zerbitzu batzuen indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2024/III

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	At / A(t-4)
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera	0,2	-1,2	1,2
Garraioa eta biltegiatzea	-0,1	-2,3	0,4
Ostalaritza	2,3	0,0	2,8
Informazioa eta komunikazioak	-0,4	0,1	1,1
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	-1,2	0,3	1,5
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	0,3	-0,9	0,5
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Araba/Álava	1,6	-0,2	1,5
Bizkaia	-0,1	-1,8	1,4
Gipuzkoa	0,1	-0,5	0,7
ENPLEGU-INDIZEA	0,7	0,2	1,1
Euskal AE			

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2024ko Azaroaren 15a

Iturria: Eustat. Merkatuko beste zerbitzu batzuen indizea

Lurralde historikoen arabera, Araban urte batetik bestera salmenta-indizea % 1,6 igo da, eta Gipuzkoan % 0,1. Bizkaian, aldiz, indizea % 0,1 jaitsi da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Hiruhileko arteko bilakaerari dagokionez, hiru lurralde historikoetan jaitsiera izan da: Araban % 0,2, Gipuzkoan % 0,5 eta Bizkaian % 1,8.

Urteko metatuan salmenten indize orokorrak % 1,2ko hazkundera izan du, eta aldakuntza positiboak izan dira sektore guztietan. Lurralde historikoek ere hobekuntzak izan dituzte salmentetan: % 1,5 Araban, % 1,4 Bizkaian eta % 0,7 Gipuzkoan.

Euskal AEko Merkatuko beste zerbitzu batzuen sektoreko landunen indizea, azkenik, % 0,7 igo da urte artean 2024ko hirugarren hiruhilekoan. Urteko bigarren hiruhilekoaren aldean, aldiz, langile okupatuen indizea % 0,2 igo da.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhileko honetako indizea laginaren **% 97,17ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62